

# IRAC eguneratzea intsektiziden eta akariziden ekintza-moten sailkapenean

**IRACek (Insecticide Resistance Action Committee) duela gutxi eguneratu du intsektiziden eta akariziden ekintza-moten sailkapena, eta berritasun nagusia da bio-intsektizidak sartu dituela.**

2019ko ekaineko 9.3 bertsioan honako hauek sartu dira: agente bakterianoak, landareen eta landare-olioen findu gabeko aterakinak, agente fungikoak, disruptore mekaniko ez-espezifikoak, peptidoak eta agente biralak.

Agente bakteriano intsektizidak, aterakinak eta olio gordinak, agente fungikoak, disruptore mekanikoak, peptidoak eta MdAren birus ezezaguna honako talde hauetan sailkatzen dira, hurrenez hurren: UNB, UNE, UNF, UNM, UNP eta UNV.

Gainera, hiru talde berri gehitu dira:

- **30 taldea:** talde hau GABAK aktibatutako kloruro-kanalean (2 taldearena ez den beste gune batean) elkarri eragiten dioten osagai aktibo berriek osatzen dute.
- **31 taldea:** bakolubirusen talde berria. Bakolubirusak ADN bikaternarioa duten birus zirkular handiak dira, intsektuentzat espezifikoak.
- **32 taldea:** azetilkolinaren (nAChR) hartzaile nikotinikoaren modulatzailerik alosterikoak-II gunea, nAChR-n batura alosterikoaren gune berri bat da, 5 taldekoa ez dena.


"The IRAC Mode of Action Classification" - ONLINE (<https://www.irc-online.org/modes-of-action/>)

"The IRAC Mode of Action Classification" - PDF (<https://www.irc-online.org/documents/moa-classification/>)

Eskuragarria dago 2019ko urtarrileko sailkapenaren gaztelaniazko bertsioa. Horretan, estatu espainiarrean erabiltzen diren edo etorkizunean erabiliko diren taldeak eta materia aktiboak sartzen dira, MAPAren Produktu Fitosanitarioen Erregistro Ofizialean oinarritutako nomenklatura dutenak. Ez daude sartuta 2019ko ekaineko 9.3 bertsio berrikuntzetako batzuk.

**Sailkapena ez da ofiziala eta dibulgazio-xedea baino ez du.**

Clasificación del modo de acción de insecticidas y acaricidas - PDF (<https://www.irc-online.org/documents/folleto-modo-de-accion-insecticidas-y-acaricidas/?ext=pdf>)



Necessary Always Enabled

**ELIKA** Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)